

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2345

HUTS-ZUZENKETA, honako ebazpen honena: 683/2023 Ebazpena, apirilaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, honako Ebazpen honen hutsak zuzentzekoa: 1816/2022 Ebazpena, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak Erdi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Erdi Mailako Tituluduna kategorian (Prebentzioko, Segurtasuneko eta Higieneko Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.b) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Era horretako huts bat aurkitu da 2023ko maiatzaren 10eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 87. zk., argitaratutako 683/2023 Ebazpenean, apirilaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, honako Ebazpen honen hutsak zuzentzekoa: 1816/2022 Ebazpena, azaroaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onartzen diren estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri espezifikoak Erdi Mailako Teknikariak lanbide-taldeko Erdi Mailako Tituluduna kategorian (Prebentzioko, Segurtasuneko eta Higieneko Erdi Mailako Teknikaria lanpostu funtzionala), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan. Hori dela eta, dagokion zuzenketa egiten da hemen:

2023/2179 (2/2) orrialdean,

honakoa esaten den lekuan:

«Gai-zerrenda orokorrari buruzko galderak prestatzeko, bibliografia emango da, IV. eranskinean sartuta, Administrazioako eta Kudeaketako Erdi Mailako Teknikariaren lanpostu funtzionala lortu nahi dutenentzat»

honakoa esan behar du:

«Gai-zerrenda orokorrari buruzko galderak prestatzeko, bibliografia emango da, IV. eranskinean sartuta, Prebentzioko, Segurtasuneko eta Higieneko Erdi Mailako Teknikariaren lanpostu funtzionala lortu nahi dutenentzat».